| 2021KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ALORREKO LANKIDETZARAKO ETA GARAPENERAKO. | CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES 2021 PARA LA COOPERACIÓN Y DESARROLLO EN EL ÁMBITO DE SERVICIOS SOCIALES Y SALUD: |
|---|---|
| Honen bidez, egiten da **2021 urteko dirulaguntzen deialdia Tolosan gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzan dihardutenei zuzendutakoa,** ordenantza espezifikoan eta "Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzaren ordenantza orokorra"n xedatutakoarekin bat datorrena. | Por medio del presente se **realiza la convocatoria del 2021 para las subvenciones** dirigidas a la cooperación y desarrollo en el ámbito de servicios sociales y salud en Tolosa, conforme a su normativa específica y a "la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus entidades públicas". |
| Deialdi hau araudi espezifikoko laguntza-lerro hauetarako da, beti ere 2021.urteko jardunari dagokionean: | Esta convocatoria es para las siguientes líneas de subvenciones de la ordenanza específica, en lo que se refiere a la actividad desarrollada durante el año 2021: |
| 1. Tolosako udalerrian eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak elkarteei. | 1. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización para la transformación social en el municipio de Tolosa. |
| 2. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko jarduerak egiteko dirulaguntzak elkarteei. | 2. Subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades en el área de servicios sociales y salud. |
| 3. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarteen mantenurako dirulaguntzak. | 3. Subvenciones para el mantenimiento de asociaciones del área de servicios sociales y salud. |
| 5. Nazioarteko lankidetzan boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak. | 5. Subvenciones para personas que colaboran voluntariamente en cooperación internacional. |
| 6. Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko dirulaguntzak. | 6. Subvenciones para la realización de proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia. |

| | |
|---|---|
| **a) Araudia:**<br><br>2017ko uztailaren 7ko datarekin argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean "Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzaren ordenantza orokorra", 2017ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onartutakoa.<br><br>Era berean, 2019ko urriaren 11ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako dirulaguntzen ordenantza espezifikoa.<br><br>**b) Diru-laguntzaren aurrekontu-kreditua eta zenbatekoa:**<br><br>Gizarte Zerbitzuen alorreko ondoko bi partiden kargura finantzatuko da dirulaguntza hau: 0500.481.01.23100 partidatik, 60.00€ eta 0500.491.01.23100 partidatik 20.000€.<br><br>0500.481.01.23100 partidan aurreikusitako 60.000€ak udalerrian alor horretan diharduten elkarteen artean banatuko dira modu honetan:<br><br>1. Tolosako udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko 10.800€.<br><br>2. Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiteko 39.000€.<br><br>(Dena den, 1. eta/edo 2. laguntza-lerroetan aurreikusitako kopurua soberan geldituko balitz, soberakina erabili ahal izango da diru-faltagatik erantzun gabe utzitako beste lerroko eskaerak | **a) Normativa:**<br><br>Con fecha de 7 de julio del 2017 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa "la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa", aprobada en el Pleno celebrado por este Ayuntamiento el 25 de abril de 2017.<br><br>Asimismo, el 11 de octubre de 2019 fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la Ordenanza específica de subvenciones para la cooperación y desarrollo en el ámbito de servicios sociales y salud.<br><br>**b) Crédito presupuestario e importe de la subvención:**<br><br>Esta subvención irá a cargo de las siguientes partidas presupuestarias; es decir, 60.000€ de la partida 0500.481.01.23100 y 20.000€ de la partida 0500.491.01.23100 .<br><br>Los 60.000€ de la partida 0500.481.01.23100 se repartirán entre las asociaciones que se intervienen en el ámbito municipal, de la siguiente manera:<br><br>1. 10.800€ a la línea de subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización para la transformación social en el municipio de Tolosa.<br><br>2. 39.000€ a asociaciones para la ejecución de actividades en el área de servicios sociales y salud.<br><br>(No obstante, en caso de que no se llegue a repartir el dinero en las líneas de subvenciones 1 y 2 quedando un remanente, este remanente se podrá destinar a cubrir demandas no |

| | |
|---|---|
| erantzuteko.) | subvencionadas por ausencia de disponibilidad económica en la otra línea de subvención.) |
| 3. Gizarte zerbitzuen arloko elkarteen mantenurako 9.000€. | 3. 9.000€ para el mantenimiento de asociaciones del área de servicios sociales y salud. |
| 6. Ekintza humanitario puntualetarako proiektuak egiteko 1.200€. | 6. 1.200€ para los proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia. |
| Eta 0500.491.01.23100 partidan aurreikusitako 20.000€ak nazioarteko lankidetzan diharduten elkarteen eta norbanako boluntarioen artean banatuko dira modu honetan: | Y los 20.000€ de la partida 0500.491.01.23100 se repartirán entre las entidades y personas voluntarias que intervienen en la cooperación internacional, de la siguiente forma: |
| 1. Tolosako udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko 4.000€. | 1. 4.000€ a la línea de subvenciones a asociaciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización para la transformación social en el municipio de Tolosa. |
| 3. Gizarte zerbitzuen arloko elkarteen mantenurako 2.000€. | 3. 2.000€ para el mantenimiento de asociaciones del área de servicios sociales y salud. |
| 5. Kooperanteentzako laguntza-lerroan 2.000€. | 5. 2.000€, para las personas que colaboran voluntariamente en cooperación internacional. |
| 6.Ekintza humanitario puntualetarako proiektuak egiteko 12.000€. | 6. 12.000€ para los proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia. |
| Gainera, beste lerroetan banatu gabe gelditutako soberakina erabili ahal izango da dirulaguntza lerro hau finantzatzeko, aurreikusitako kopuruarekin ez bada nahikoa. | Del mismo modo, en caso de que quede remanente en desuso, se podrá destinar a esta línea de subvención, si resulta que el dinero previsto no cubra las necesidades. |
| **c) Diru-laguntzaren xedea, onuradunak eta baldintzak** | **c) Objeto, personas beneficiarias y requisitos de la subvención.** |
| Xedea da diruz laguntzea gizarte | El objeto es subvencionar las entidades |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| ekintzaren esparruan jarduerak, proiektuak edo programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona edo erakundeei, eta bultzatuz elkartegintza, boluntariotza, alorrari dagozkion dibulgazio eta sentsibilizazio jarduerak, prestakuntza, pertsonen eta kolektibo desberdinen gizarteratzea eta arreta. | que promueven actividades, proyectos y programas en el ámbito de la acción social, fomentando el asociacionismo, el voluntariado, las campañas divulgativas y de sensibilización, la formación, la integración y/o la atención a las personas y colectivos/o. |
| Diru laguntza honen onuradunak izango dira ondoko baldintza orokor hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak (5. laguntza lerroa bakarrik) edo juridikoak: | Podrán ser beneficiarios de estas ayudas las personas físicas (solo para la línea 5) o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos generales: |
| - Irabazi asmorik ez izatea | - No tener ánimo de lucro |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean edo Tolosako izaera sozialeko elkarteen erregistroan inskribatuta egotea | - Estar inscrita en el Registro General de Asociaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco o el registro de asociaciones de carácter social de Tolosa. |
| - Elkarteak bere egoitza nagusia edo legez eratutako ordezkaritza iraunkorra Tolosan edukitzea. | - Tener la sede principal o delegación legal permanente en Tolosa. |
| Salbuespen gisa, diru-laguntza jaso ahal izango dute Tolosarentzat interesgarriak direla iritzitako gizarte jarduerek ere, elkartearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Tolosan ez badute ere. Baina, nolanahi ere, diruz lagunduko den ekintza Tolosan gauzatu beharko da. | Excepcionalmente, también podrán ser perceptoras de subvenciones las actividades sociales consideradas de interés para Tolosa, aunque la sede o delegación social de la asociación no esté en el municipio, siempre y cuando la acción a subvencionar se lleve a cabo en la localidad. |
| Era berean, onartu ahal izango dira Tolosako ordezkaritza legez eratuta ez daukaten elkarteen proposamenak, Tolosarentzat interesgarriak direla ondorioztatzen bada, beti ere elkartearen zuzendaritzak baimentzen badu ordezkari iraunkor hori diru-laguntzaren izapidea burutzeko. | También podrán ser admitidas las propuestas de asociaciones que no tengan constituida legalmente la delegación en Tolosa, si se considera que las mismas son de interés para Tolosa, siempre que la dirección de la asociación autorice un/a delegado/a permanente para que tramite la |

| | |
|---|---|
| - Diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoa edo juridikoa edo diru-laguntza jasotzeko egoera legitimoan dagoena izango da diru-laguntza hauen onuraduna. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinean jasotzen diren baldintza espezifikoak bete beharko ditu.<br><br>- Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren zerga betebeharrak egunean izatea.<br><br>-Araudi espezifikoan espresuki zehaztutako debeku-egoeretako batean ez egotea.<br><br>-Laguntza-lerro bakoitzean jasotzen diren bestelako baldintza zehatzak betetzea, kasuan-kasu.<br><br>**d) Diru-laguntza emateko erregimena.**<br><br>Norgehiagokako erregimena emango dira diru-laguntza hauek.<br><br>**e) Diru-laguntza eskatzeko baldintzak egiaztatzeko modua.**<br><br>Eskatzaileek, honako dokumentazioa aurkeztuko dute:<br><br>1- Eskaera orria dagokion laguntza-ildoaren eredua behar bezala beteta<br><br>2- Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria (*soilik kontsulta egiteari uko egiten diola adierazten badu)<br><br>3- Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria (*soilik | subvención.<br><br>- Será beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que vaya a realizar la actividad objeto de la subvención o que esté en situación legítima para recibirla. Dicha persona deberá cumplir también los requisitos específicos reflejados en el anexo de cada línea de subvenciones.<br><br>- Estar al corriente de las obligaciones tributarias de la Seguridad Social y de Hacienda.<br><br>-No cumplir ninguna de las situación prohibidas expresamente en la ordenanza específica.<br><br>-Cumplir con las condiciones específicas detalladas para cada línea de subvención específica, en su caso.<br><br>**d) Régimen para la concesión de la subvención.**<br><br>Esta subvención se concederá en régimen de concurrencia competitiva.<br><br>**e) Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**<br><br>Se deberá presentar la siguiente documentación:<br><br>1- El modelo de solicitud correspondiente a la línea o líneas que interesan solicitar, cumplimentados debidamente.<br><br>2- Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias con Hacienda (*sólo en el caso de que se haya manifestado la oposición a ser consultado).<br><br>3- Certificado de estar al corriente de las |

| | |
|---|---|
| kontsulta egiteari uko egiten diola adierazten badu). | obligaciones de la Seguridad Social (*sólo en el caso de que se haya manifestado la oposición a ser consultado). |
| 4-Eskatu nahi den laguntza ildoaren inguruko informazio xehea (proiektua, jarduera edo ekintzarena) eta aurrekontu osatua (sarrerak eta gastuak). | 4- Información detallada acerca de la línea de ayudas que se quiere solicitar (proyecto, actividad o acto) y presupuesto completo (ingresos y gastos). |
| **f) Balorazio-batzordearen osaketa.** | **f) Composición de la Comisión de Valoración.** |
| Eskaeren inguruko balorazioa Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan aztertuko da eta Herritarrak lan-esparruko Batzorde Informatiboan azalduko da proposamena. Erabaki-proposamena aurkeztuko zaio eskumena duen organoari, kasu honetan, alkate anderea izanik eskumen hori duen organoa. | El Departamento de Servicios Sociales estudiará las solicitudes y se expondrá la propuesta en la Comisión Informativa de Herritarrak. Se elevará la propuesta de resolución al órgano competente, siendo en este caso la alcaldesa el órgano competente. |
| **g) Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.** | **g) Plazo y lugar para presentar las solicitudes.** |
| Epea izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita **20 egun** naturalekoa. | Se establece el siguiente plazo: **20 días** naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria. |
| Eskaerak aurkeztu behar dira telematikoki www.tolosa.eus orriaren bidez, erregistro elektronikoan, 24 orduz. Dena den, 5. laguntza-lerroari dagozkion eskaerak aurkeztu daitezke aurrez-aurre Udal-erregistroan (UDATEn) bere ohiko ordutegian. | Las solicitudes se presentarán telemáticamente en el registro municipal electrónico a través de la página www.tolosa.eus. No obstante, la solicitudes de la línea de subvención 5 tambien se podrán presentar presencialmente en el Registro Municipal - UDATE en su horario de atención habitual. |
| **Eskaera egiteko eredua eta kasuan-kasu beharrezko diren eranskinak eta aurkeztu beharreko gainerako dokumentuak arretaz osatu behar dira, laguntzak emateko ezinbestekoa den informazio guztia aurkeztuz.** | **Se deberán cumplimentar debidamente tanto el modelo de solicitud como los los anexos, y aportar todos los documentos requeridos en cada caso, presentando toda la información necesaria para resolver las ayudas.** |
| Eskatuko den kopurua zehazterakoan, kontuan izango dira ordenantza espezifikoan laguntza lerro bakoitzerako zehazten diren muga hauek: | Las cuantía detallada en la solicitud será coherente con los límites que se establecen en la ordenanza específica para cada línea de subvención: |

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

| | |
|---|---|
| 1. Sentsibilizazio proiektuak eta ekintzak lerroa: *Epe luzerako ekintzen* eskaeraren zenbatekoak ezingo du gainditu kostuaren %80a, ez eta gehienezko 3000€ko muga eta gutxieneko 100€ko muga ere. Era berean, *ekintza puntualak* direnean (hitzaldiak, emanaldiak,...) antolatutako ekintza bakoitzeko eskaerak ez du gaindituko kostuaren %80a ez eta 1000€ko gehienezko muga eta 100€ko gutxieneko muga ere. Azken kasu honetan, gehienez 3 ekintza lagundu ahal izango dira.<br><br>2. Jarduerak egiteko lerroa: Arreta-proiektuaren kostuaren %80a, eta artatuak izango diren Tolosako onuradunen araberako muga hauek ezingo du gainditu:<br><br>- 40 onuradun baino gutxiago: 1.000€ko gehienezko muga eta 100€ko gutxieneko muga.<br>- 41 eta 80 artean: 4.000€ko gehienezko muga eta 100€ko gutxieneko muga.<br><br>- 81 onuradun baino gehiago: 6.000€ko gehienezko muga eta 100€ko gutxieneko muga.<br><br>3. Elkarteen mantenurako diru-laguntzak: Urte guztiko iraupeneko funtzionamendurako eta mantenurako eskaerak ezingo du gainditu 400€ko gehienezko muga, ez eta 100€ko gutxieneko muga ere.<br><br>5. Nazioarteko lankidetzan boluntarioki dihardutenentzat diru-laguntzak. Gehienez ere kostuaren %50a finantzatuko da, eta eskaera bakoitzak ezingo du gainditu 600€ko gehienezko muga, ez eta 100€ko gutxieneko muga | 1. Subvenciones para la ejecución de actividades y proyectos educativos y de sensibilización: El importe de la solicitud de *acciones a largo plazo* no podrá superar el 80 % de su coste ni ser superior a 3000 € o inferior a 100 €. Asimismo, cuando se trate de *acciones puntuales* (conferencias, proyecciones,...) la solicitud de cada acción programada no superará el 80 % de su coste ni será superior a 1000 € o inferior a 100 €. En este caso, se podrán subvencionar hasta un máximo de tres acciones.<br><br>2. Subvenciones para la ejecución de actividades: El 80 % del coste de cada<br><br>proyecto de atención no podrá superar el siguiente importe según el número de personas atendidas de Tolosa:<br><br>- Menos de 40 beneficiarios: 1.000 € como máximo y 100 € como mínimo.<br><br>- Entre 41 y 80: 4.000 € como máximo y 100 € como mínimo.<br><br>- Más de 81 beneficiarios: 6.000€ como máximo y 100€ como mínimo.<br><br>3. Subvenciones para el mantenimiento de asociaciones. La solicitud para el funcionamiento y mantenimiento anual no podrá superar los 400€ ni ser inferior a 100€.<br><br>5. Subvenciones para personas que colaboran voluntariamente en cooperación internacional: Como máximo se financiará el 50 % del coste, siendo el importe máximo de cada solicitud 600 € y el mínimo 100 €. |

| | |
|---|---|
| ere.<br><br>6. Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako proiektuak egiteko diru-laguntzak. Hautatutako proiektuei emandako laguntzen zenbatekoa, orokorrean, proiektuaren kostuaren % 80koa izango da gehienez, horretarako dagoen aurrekontuen partidan dagoen soberakina gainditu gabe.<br><br>**h) Ebazpena eta argitaratzea.**<br><br>Eskaerak Gizarte Politikako Departamentuak izapidetuko ditu, diru-laguntza honen araudian zehazten den prozedura eta ebaluazio-irizpideak jarraituz.<br><br>Gehienez 6 hilabeteko epean hartu eta jakinaraziko da erabakia alkate-dekretu bidez, eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren web orrian argitaratuko da. Era berean, erabakiaren berri emango zaio Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalari, hurrengo hilabete naturala amaitu baino lehen (BDNS).<br><br>**i) Dirulaguntza emateko irizpide objetiboak**<br><br>Ordenantza espezifikoko laguntza-lerroen eranskinetan jasotzen dira lerro bakoitzerako zehaztutako balorazio-irizpideak.<br><br>**j) Dirulaguntzen ordainketa**<br><br>Orokorrean, emandako diru-laguntzak ez du gaindituko aurkeztutako eskaeran aurreikusten den kostu guztiaren %80a, elkartearen mantenu gastuetan izan ezik, kasu horretan gastuaren %100a asumitu ahal izango baita, beti ere ez bada gainditzen horretarako ezarritako muga. | 6. Subvenciones para la realización de proyectos de actividades humanitarias puntuales en situaciones de emergencia: El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, el 80 % del coste del proyecto, sin superar el remanente existente en las partidas presupuestarias correspondientes.<br><br>**h) Resolución y publicación.**<br><br>Las solicitudes se tramitarán en el Departamento de Servicios Sociales, conforme al procedimiento determinado en la normativa de la presente subvención y las condiciones de evaluación.<br><br>Se resolverá y anunciará en un plazo máximo de 6 meses, y será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento. A su vez, se comunicará la resolución a la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) antes de que se acabe el siguiente mes natural.<br><br>**i) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención**<br><br>Las subvenciones se concederán según los criterios determinados en los anexos de las presentes Bases para cada línea de subvenciones.<br><br>**j) Abono de las subvenciones**<br><br>Con carácter general, la subvención concedida no superará el 80 % del coste total previsto en la solicitud aportada, salvo en los gastos de mantenimiento de la asociación, en cuyo caso se asumirá el 100 % del gasto, siempre que no supere el |

| Eskatzaileak, eskaera egiterakoan aukeratu ahal izango du diru-laguntzaren ordainketa zein modalitateetan egitea nahi duen, honako aukera hauek izango dituelarik: | límite establecido para ello.<br><br>Al hacer la solicitud, el solicitante podrá elegir la modalidad del pago de la subvención entre las siguientes opciones: |
|---|---|
| a- Jasoko duen laguntzaren %100a ordainduko zaio ebazpenaren jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera. | a- El 100 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación. |
| b-Jasoko duen laguntzaren %50a ordainduko zaio ebazpenaren jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera; eta gastuaren justifikazioa onartutakoan gainerako %50a aurreratuko zaie. | b- El 50 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación; el restante 50 % se les abonará por adelantado al aprobarse la justificación del gasto. |
| c-Jasoko duen laguntzaren %75a ordainduko zaie ebazpenaren jakinarazpena onartu ondoren, edota garapeneko lankidetza proiektuetarako laguntzen kasuan, dagokion lankidetza hitzarmena sinatzearekin batera, eta egindako ekintza edo proiektua amaitutakoan, justifikazioa aurkeztutakoan egingo da likidazioa. | c- El 75 % de la ayuda a percibir se le abonará después de aceptar la notificación de la resolución o, en el caso de las ayudas para proyectos de cooperación para el desarrollo, al firmar el correspondiente convenio de cooperación, y una vez finalizada la acción o el proyecto realizado, se efectuará la liquidación después de que se aporte la justificación. |
| Hasieratik onartu eta aurreratu zaion diru-laguntza agortu ez badu onuradunak, aplikatu ez dituen soberakinak dagokien interesarekin itzuli beharko ditu.<br><br>**k) Justifikatzeko modua eta epea** | Si el beneficiario no ha agotado la subvención aprobada y adelantada desde el principio, deberá reintegrar con los correspondientes intereses el remanente no aplicado.<br><br>**k)Justificación y plazo** |

| | |
|---|---|
| Onuradunak emandako laguntza justifikatu beharko du datorren 2022ko urtarrilaren 31a baino lehen, eta horretarako erregistratu beharko ditu Tolosako Udaleko erregistroan (telematikoki) atal honetan azaldutako dokumentuak Tolosako Udalean. | La entidad beneficiaria deberá justificar la subvención recibida antes del día 31 de enero del 2022, registrando telemáticamente en el Registro del Ayuntamiento de Tolosa la documentación que se detalla en este apartado . |
| ***Salbuespena 6 lerroa: Dirulaguntza eman den urtean bertan hasi beharko da proiektua, eta gehienez 15 hilabeteko iraupena izango du. Dena den, Tolosako Udalari jakinarazi beharko zaio zein egunetan hasi den eskuhartzea. Programa garatzeko arduradun bezala adierazitako taldeari edo erakundeari egindako diru-transferentziaren agiria aurkeztu beharko du eta bi hilabeteko epean izan beharko da; dirulaguntza hasi zenetik kontatzen hasita. Gainerako justifikazioak aurkezteko epea, orokorrean, proiektua amaiten denetik bi hilabeteko epean izango da. | ***Excepción línea 6: El proyecto habrá de iniciarse el año de la concesión de la subvención y su duración en cualquier caso no será superior a 15 meses contando desde la recepción de la subvención, debiendo comunicar al Ayuntamiento de Tolosa en todo caso la fecha de inicio real de la intervención. Se deberá entregar el justificante de la transferencia al grupo o institución señalada como responsable de la ejecución del programa y éste tendrá un plazo de dos meses para presentar la justificación de dicha transferencia. Para el resto de la justificación, con carácter general, el plazo será de dos meses, contados a partir de la finalización del proyecto. |
| Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorraren 28. artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu, laguntza eman duen organoaren aurrean. Ordenantza espezifiko batean, hitzarmenaren testuaren edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean zehaztuko da diru-laguntzak justifikatzeko modua. Diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. | Tal y como se establece en el art. 28 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos, la persona beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos e ingresos ante el órgano concedente de la subvención. La modalidad de justificación de subvenciones vendrá especificada en ordenanza específica, en el texto del convenio o en la resolución de concesión directa. Se deberá justificar el 100 % del proyecto, actividad o programa subvencionado. |
| Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako diru-laguntza. | En caso de que los gastos justificados fueran menores que los presupuestados, la subvención concedida se minoraría en el mismo porcentaje. |
| Tolosako Udalaren eta bere erakunde | |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| publikoen diru-laguntzen ordenantza orokorrean (30. artikuluan) jasotakoari jarraiki, Justifikazio Kontu Erraztua erabiliko da horretarako, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du: | En el artículo 30 de la Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus organismos públicos, y según el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, se utilizará la cuenta justificativa simplificada, teniendo en cuenta la siguiente documentación: |
| — Jarduera memoria bat diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan (ahal den neurrian, datu guzti hauek aurkeztuko dira sexuen arabera banatuta). | — Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos (en la medida de lo posible, los datos se presentará distribuidos según el sexo). |
| — Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa epeak adierazita. | — Una relación en la que se clasifiquen los gastos y las inversiones, indicando el acreedor y el documento, la fecha y los tiempos de pago. |
| — Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren. | — Una especificación de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. |
| — Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli dioen ordainketa gutuna. | — Una carta de pago que indique los reintegros de los remanentes no aplicados y los intereses derivados de los mismos. |
| Emandako diru laguntzaren zenbatekoaren %25eko kopurua gainditzen duten egiaztagiri guztiez gain, lagin-teknikaren bidez aukeratutakoak egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, diru-laguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko. Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafiko juridikoan, | Se comprobarán todos los justificantes que excedan del 25% de la subvención otorgada. Además, a través de una técnica de muestreo se comprobarán los justificantes de gasto que pertinentes a fin de obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. En todo caso, los justificantes de gasto serán justificantes originales del gasto realizado y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia |

| | |
|---|---|
| erregelamendu bidez jarritakoaren arabera. | administrativa, en los términos establecidos reglamentariamente. |
| **l) Bateragarritasuna.** | **l) Compatibilidad.** |
| Diru-laguntza hau bateragarria izango da edonolako gainerako diru-laguntzekin, beti ere ez badu gainditzen finantzatu nahi den xedearen kostua. | La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin, siempre y cuando no exceda el coste de la actividad subvencionada. |
| **m) Ebazpenean aldaketak** | **m) Modificaciones en la resolución** |
| Elkarte onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, diru-laguntza eman duen organoari eska diezaiokete ebazpenean ezarritako epeak luzatzea dakartzaten aldaketak, emandako diru-kopurua murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzen aldaketa egitea; aldaketa horiek baietza jasoko dute ezusteko baten ondorioz sortuak izan badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak egiten badira, baldin eta diru-laguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada eta inoren eskubideak kaltetzen ez badira. | Las entidades podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros. |
| **n) Informazioa eta publizitatea.** | **n) Información y publicidad.** |
| Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda (www.tolosa.eus), eta horrekin bat, beste iragartzeko baliabide hauetan ere: Gardentasun atarian , Estatuko dirulaguntzen Datu Basean eta G.A.Oan. | La relación de subvenciones concedidas será publicada en la página web del Ayuntamiento (www.tolosa.eus) y en el tablón de anuncios municipal, además de en el portal de transparencia, la Base de Datos Nacional de Subvenciones y el Boletin Oficial de Gipuzkoa. |
| Bestalde, diruz lagundutako edonolako programa, jarduera, inbertsio edo ekimenaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du diru-laguntzaren onuradunak, hizkuntza modu ez sexista erabilita. Era berean, publizitate hori egiterakoan emankumeenganako edozein irudi | Por otro lado, los programas, actividades, inversiones o iniciativas subvencionadas, tendrán que hacer publicidad acerca del carácter público empleando un uso no sexista del lenguaje. Del mismo modo, se evitará cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se |

TOLOSAKO
UDALA

| | |
|---|---|
| diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestuko du, eta sustatuko ditu berdinatasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol aniztasuna eta genero identitateak jasoko dituen irudia. | promoverán valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género. |
| Tolosan, 2021ko apirilaren 20an | En Tolosa, a 20 de abril del 2021 |